

# Osoko bilkura

Donostian, 2017ko urtarrilaren 27an.

## Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Azkarate, Miren,  
Goenaga, Patxi,  
Iñigo, Andres,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Salaberri, Patxi,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi.  
Gurrutzaga, Antton,  
Osa, Erramun,  
Mujika, Alfontso eta  
Zabaleta, Joseba,  
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “B. Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Jean-Baptiste Battittu Coyosi; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Joan Mari Torrealdai ahala (iritsi bitartean) Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2017ko urtarrilaren 27an, ostiralean, 10:00etan hasi da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urtarrileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Erramun Osa idazkariordeak esan du *Orotariko Euskal Hiztegiaren* 5. argitaraldiaren bertsio elektronikoa aurkezteko etena egingo dela 10:30ean. *Orotariko Euskal Hiztegiaren* (OEH) 5. argitaraldiak 1.169 sarrera berri ditu eta beste 4.446 aldatu egin dira. Gaur egun, guztira, 145.318 sarrera ditu. Oraingoan, lege eta administrazio arloko testuetatik ateratako hitzez osatu da.

Horren berri eman ondoren, eguneko aztergaiak jorratu dira.

**1. Osoko bilkurako (2016-12-16) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz**

Idazkaritzara ez da inolako oharrik iritsi. A. Urrutia euskaltzainburuak oharrik dagoen galdetuta, halakorik egon ez denez, bilera-agiria onartu da.

**2. *H* letraz amaituriko hitzen deklinabidea. Abenduko Osoko bilkuran izandako eztabaida kontuan hartuz, egokitzapena aurkeztu eta erabakia hartu**

Aztergaia jorratu aurretik batzar-aretora Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria sartu da.

Abenduko Osoko bilkuran, amaieran *-h* letra duten hitzak deklinatzeari buruz izaniko eztabaida gogora ekarri du. Abenduko Osoko bilkuran, hau erabaki zen: hatxe letraz amaitzen diren hitzak deklinatzeko, hatxe letra kontuan ez hartzea eta hatxearen aurreko hitzaren arabera (bokala edo kontsonantea) deklinatzea. Hau da: Sarah-k, Sarah-ren; Allah-k, Allah... Halaber, erabaki zen Exonomastika batzordeak ohar bat idaztea erabaki horren zergatia azaltzeko eta ohar hori Osoko bilkurara ekartzea, onartua izan zedin eta, hala, arau osoa argitaratu ahal izateko.

Ohar hori landu du Exonomastika batzordeak, eta Alfontso Mujikak aurkeztu du:

“ (...) Hatxe grafema, berez, kontsonante bati dagokio. Horregatik, izanik irizpide nagusia euskal hitzak balira bezala hautatzea deklinabide-atzizkia, kontuan harturik zein den hitzaren azken letra –kontsonantea edo bokala–, pentsa liteke kontsonantez amaitutako hitzak bezala deklinatzekoa dela.

Alabaina, badu bereizgarri bat hatxe letra gainerako kontsonanteetatik aldentzen duena: ez da inoiz gertatu euskararen historia ezagunean hatxe letra hitz baten amaieran ahoskatzea, ezin da hori gertatu euskaraz, nahiz eta beste hizkuntza batzuetan, hala nola arabieraz edo hebreeraz, hasperentez hori gertatu. Horretan da desberdina hatxe letra hitz baten amaieran gerta daitezkeen gainerako kontsonanteen aldean, euskararen sistema fonologikoari dagokionez, ahoskatzeko ezintasunean.

Horregatik, amaierako hatxe letra kontuan hartuta deklinatzeko gomendioa emanez gero, nahiz eta gomendioa idatzirako izan eta ez ahozkorako, arriskua legoke ahoskera bitxiak sustatzeko; alegia, gerta liteke grafiak ahoskera baldintzatzea eta ahoskera desegokiak sustatzea.

Horregatik, arrazoizkoa da hitzaren amaierako hatxe letra kontuan ez hartzea hitza deklinatzeko. Literaturan ere, adibideak urriak badira ere, hala jokatu dute ia idazle guztiek Allah jainko-izena deklinatu dutenean; hau da, Allah-k, Allah-ren...

Beraz: *h* letraz amaitutako hitzak, idatziz, azken hatxea kontuan hartu gabe deklinatzen dira; hau da, amaierako hatxearen aurreko letra kontuan hartuta dagokien bezala deklinatzen dira”.

Onartu egin da. Beraz, araugaia onarturik gelditu da; arau bihurtu da.

### **3. 165. arauaren 5. oin-oharra. Testu berria aurkeztu eta erabakia hartu**

Arabiar alfabetoaren transkripzioetan hitz batzuetan gertatzen den amaierako "h" letraren kasuistika kontuan harturik, ohar hori mantendu ala ez aztertu da. Izan ere, 2016ko abenduko Osoko bilkuran hartutako erabakiaren ondorioz (<<h letraz amaitutako hitzak, idatziz, azken hatxea kontuan hartu gabe deklinatzen dira; hau da, amaierako hatxearen aurreko letra kontuan hartuta dagokien bezala deklinatzen dira>>), aldatu egin behar da 5. oharra. Gauzak horrela, bi aukera aurkeztu dira. Batetik, 5. oin-oharra osorik kentzea. Lehen ez zegoen araurik halakoak nola deklinatu behar ziren adierazteko; orain, bai. Beraz, ohar hori ez da behar. Bestetik, oin-oharrean arau berriak dioena aplikatzea (<<Hasperenduna da, eta ahoskatu egiten da. Idatziz deklinatzeko orduan, dena dela, azken hatxea ez da kontuan hartzen. Adibidez, Palestinako Al-Fatah erakunde ezaguna (arabieraz, حتف ) hone-la deklinatzen da idatziz: Fatah(-)k, Fatah(-)ko, Fatah(-)ren...>>).

Iritzi-trukearen ondoren, 5. oin-oharra kentzea eta *Plazaberrin* argibideak ematea erabaki da.

### **4. “Dinastien izenak”. Ekarpenak aurkeztu eta erabakiak hartu**

Abenduko Osoko bilkuran aurkeztu zen araugaia, eta oharrak egiteko epea ere jarri zen. Ez da oharririk iritsi. Horrenbestez, araugaia onarturik gelditu da; arau bihurtu da.

**5. Pertsona-izenak. Atzerriko pertsona-izenen grafia egokitzea: noiz bai eta noiz ez. Irizpideak. “Europako errege-erreginen izenak”. Ekarpinak aurkeztu eta erabakiak hartu**

X. Videgain euskaltzain osoak aurkeztu ditu oharrak. Horiek kontuan hartuz, Exonomastika batzordeak txostena prestatu du. Banan-banan aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki dira. Hauek dira erabakiak:

Martin Gizatiarra

Antso Desiratua

Henrike Inpotentea

Filipe Debotoa

Antso Debotoa

Fernando Aldartetsua

Printze Perfektua

Exonomastika batzordeak banaturiko dokumentuaren harira zalantza sortu da Baiazeto izena dela eta, ez ote dagokion Bajazeto. Batzordeari itzultzea erabaki da, otsaileko Osoko bilkuran pertsona-izen horri buruz batzordeak ematen duen iritzia-  
ren ondoren, azken erabakia hartzeko.

Azken zalantza hori azaldu ondoren, araugaiaren bigarren partea, izen-zerrenda, onarturik geldituko da. Araugaiaren lehenengo zatia, irizpideei buruzkoa, ez da eztabaidatu. Irizpideen atala urriko Osoko bilkuran aurkeztu zen, baina batzordeari eskatu zaio erabilerari buruzko ahalik eta datu gehienekin osatzea txostena, otsaileko Osoko bilkuran eztabaidatu ahal izateko.

**6. *Kimikako Oinarrizko Lexikoa*: aurkezturiko proposamenari egindako oharren lanketa eta lantaldearen proposamen eguneratua. Ekarpinak aurkeztu eta erabakiak hartu**

Aztergaia jorratu aurretik batzar-aretoa Antton Gurrutxaga Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko lantaldeko kidea sartu da.

E. Osak argitu duenez, lantaldeak aurkezturiko azken proposamenari, Osoko bilkuran eztabaidatu ondoren berrosatu zenari, ez zaio inolako oharririk egin. On-

dorioz, lantaldeak eginiko proposamenak onartu dira. A. Gurrutzagak gogorarazi ditu dokumentua berrosatzeko baliaturiko irizpideak. Batetik, *Euskaltzaindiaren Hiztegiarekin* kontraesanean zeuden hitzen kasuan, *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* dioena jaso da. Bestetik, *Euskaltzaindiaren Hiztegian* agertzen ez diren hitzen kasuan, onarpen zabala duten berbak jaso dira. Azken hauei dagokienez, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* hurrengo argitaraldia bideratzerakoan erabakiko da hiztegian sartzea beharreak edota komenigarria ote den, hitz batzuen kasuan azalpen eta teoria osoak jaso behar baitira, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* definizioen eremua gaindituz.

#### **7. 150. araua aldatzeko Onomastika batzordeak egindako proposamena. Ekarpenak aurkeztu eta erabakiak hartu**

Onomastika batzordea biltzeko astirik egon ez denez, puntu hau hurrengorako uztea erabaki da.

### **8. Esku artekoak**

**8.1. Hiazinto Fernandorena Setien euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri.** Urte luzez, euskalgintzan jardun zuen urnietarrak. 86 urte zituela zendu da, urtarilaren 6an. Lazkaoko ikastolen sortzaile eta euskal udalekuen bultzatzaileetako bat izan zen. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1967ko abuztuan.

#### **8.2. Hurrengo bilkurak.** Ondoko hauek izango dira hurrengo bilkurak:

Otsailaren 7an, "Toponimia administrazioaren eguneroko jardunean V. ikastaroa" egingo da Burlatan, Iturrondo eraikinean. Egitarauaren berri eman da Osoko bilkuran.

*Eguna* egunkariaren 80. urteurrena dela eta, jardunaldia egingo da Bilbon, egoitzan, otsailaren 10ean. Egitarauaren berri eman da Osoko bilkuran.

2017ko otsailaren 24an, ostiralean, Bilbon, egoitzan, goizeko 10:00etan hasita, Osoko bilkura egingo da.

**8.3. Ipar Euskal Herrian eginiko urratsen berri.** X. Videgain buruordeak adierazi du Ipar Euskal Herriko egitura berrira, Euskal Elkargora, iristeko udalek zer egin duten eta, hizkuntza politikari dagokionez, egitura berri horrek zer aukera ekarriko duen. Era berean, 2016. urtearen bukaeran egin diren ekintzak eta jardunaldiak hizpide izan ditu, Ipar Euskal Herrian Euskaltzaindia indartzeko asmoz, besteak beste, Baionako Udalarekin abenduaren 6an izenpetu zen lankidetzahitzarmenaren inguruabarrean.

Testuinguru horretan, besteren artean, toponimiaz gero eta sarriago egiten diren galderei erantzuteko, ikertzaile bat hartu dela aditzera eman du. Hartu ere, Ipar Euskal Herriko Euskaltzaindia Elkaratearen izenean egin da hartze hori. Elkarateak nortasun juridiko berezia du, eta kontratazioa, lan kontratuak eta abar Frantziako legeriaren arabera egiten dira. Orobat, elkarte horrek bere Zuzendaritza eta Osoko bilkura propioak ditu eta Ipar Euskal Herriko herri-erakundeek diru laguntzak elkarte horretara bideratzen dituzte. Hainbatez, Ipar Euskal Herriko Euskaltzaindia Elkarateak autonomia osoa du kontratazioak egiteko. M. Azkaratek galdetu du ea deialdi publikorik egin den. Erantzun zaio ezetz, sarritan arazoak izaten direlako Ipar Euskal Herrian profil jakin bateko hautagaiak aurkitzeko.

**8.4. PuntuEus.** Joan Mari Torrealdai PuntuEus Fundazioan Euskaltzaindiaren ordezkari den euskaltzain osoak azalpenak eman ditu. Berak argitu duenez, Euskaltzaindia hasieratik egon da Zuzendaritzan, bai elkartearen zenean, bai eta fundazioaren denetik ere. Aurrena, A. Sagarna izan zen lehendakari. Ondoren, J. M. Torrealdai izan du lehendakari kargua Fundazioan. Fundazioaren azkenengo bilkurak Iñaki Goirizelaia, duela gutxi arte Euskal Herriko Unibertsitateko errektore izandakoa, Fundazioaren lehendakari eta J. M. Torrealdai lehendakariorde izendatu zituen.

PuntuEus abian jarri zenean begiz jotako erabiltzaile kopuruetara ez direla oraindik iritsi, hazteko aukerak daudela, eta indarra eta zabalkundea egitea garrantzitsua direla azpimarratu du J. M. Torrealdai.

**8.5. Langileekiko-harremanak.** J. Zabaleta kudeatzaileak Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak Erakundearen lan-hitzarmena adostu dutela aditzera eman du. Lan-hitzarmenak jasotzen dituen berrikuntzak azaldu ditu Osoko bilkuran.

**8.6. EiTBren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena.** Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak 2020ra arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten urtarrilaren 18an, EiTBren Bilboko egoitzan. Akordioaren bitartez, euskara eredu estandarra zabaltzen lagunduko du erakunde publikoak, bere plataforma eta hedabide guztietan; horrez gain, euskalkien aberastasuna bistaritzen eta balioan jartzen ere ahaleginduko da. Bestetik, EiTBren testu-masa Lexikoaren Behatokia egitasmoan erabiltzen jarraitzeko aukera ematen zaio Euskaltzaindiari.

## 9. Azken ordukoak

**9.1. Urteko egutegiari buruzko galderak.** M. L. Oñederrak galdetu du martxoan aurreikusitako Barne Jardunaldiak egun bakarrekoak edo bi egunekoak izango ote diren. Izan ere, azaroan onarturiko egutegian ez zen gai hau argitu. Erantzun zaio Barne Jardunaldietako aztergaiak hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko direla eta orduan xehetasun gehiago eman ahalko direla.

Era berean, apirilean Osoko Bilkura egongo den galdetu du. Erantzun zaio apirilean aurreikusitako Osoko Bilkura ez dela egingo, egun horretan Araban (bereziki, Gasteizen) jaiegun esanguratsua baita.

Bilkurari amaiera eman aurretik, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak adosturiko lan-hitzarmena izenpetzeko asmoz, Maixa Goikoetxea langileen ordezkaria batzar aretora sartu da. Ondoren, M. Goikoetxeak eta A. Urrutiak bi urteko iraupena eta beste bi urtez luzatzeko aukera dakarren Erakundearen Lan-hitzarmena izenpetu dute. Dokumentuak trukatu eta elkarri eskua emanez amaitu da saioa.

Eta beste aztergaiarik ez dela, 13:45 direnean Osoko Bilkura bukatutzat eman da.

Euskaltzainburua,  
Andres Urrutia

Idazkaria,  
Xabier Kintana